

DONOSTIAKO ORFEOIAREN MENDEHURRENA

ANTTON AIESTARAN PIKABEA

(1939-IV-14 - 1986-XII-22)

Joxemari Aranalde

Orfeoiak ehun urte egiten dituen honetan hamaika egingo ditu azken aurreko direktorea hil zela. Urteak joan egiten direla? Ez da gezurra. Hamaika urte dagoeneko egun triste hura izan zela! Maalena egunean bost hilabete faltako dira juxtu-juxtu.


Hura eguna abenduaren hogeita bi hura! Dena euri, dena laino, dena haize, dena busti. "Abenduko eguna, argitu orduko iluna?". Harek ez zuen iluntzen lanik izan, ez baitzuen argitu ere egin.

Eta ilunpe beltz eta itsu eta busti haretan galdu genuen Añorgako Unanue-berriko seme prestatua. Ez da bada bide luzea Trintxerpetik Donostiarako hori! Baina egun hartan burutu ezineko bidaia gertatu zitzaion gure gizonari. Tarte horretantxe hil zitzaigun Antton Aiestaran Pikabea Jauna,

hemezortzi urte hartan Donostiako Orfeoiaren Direttore zen gizona. Ez zen iritxi Gabon bezperetako brindisa bere lagunekin egitera. Zai ditu oraindik.

Eta hura negarra jendeak hasi zuena Anttonek istripua izan zuela eta hiltzekoa izan zuela jakin zuenean! Eguraldia bustia zela baina, jendearen begietan ere bazen orduantxe gandua eta ura. Eta zein harri!

Ez al ziren lorietan sasoin hartan donostiarrak beren orfeoiarekin? Ez al zituzten laudorioak laudorioen gain entzuten eta irakurtzen beren abesbatzak itzuliren bat egiten zuen aldi oroz? Aurre hartantxe zuen bukatua bat. Errusian barna ibiliak ziren eta ekarri zuten zer kontaturik eta entzun zuten gorespene ederrik. Bai, harro zen jendea epoka hartan, eta zorionez puztua zebilen orfeoitarra eta donostiarra.



Antton Aiestaran
zuzentzen 1970.
urtean
(Argazkia: Marn-ena)



Eta jendea ez tatan zebilen garaian, direttorea hil zela. Istripu gogorra izan zuela aurrena, eta hil zela hurrena. Aurreko pozaren pareko eta dina izan zen ondorengo negarraren haundia.

Horrelaxe bukatu zituen bere hemezortzi urteak Orfeoiaren zuzendaritzan Antton Aiestaran-Pikabea jaunak. 1986a zen urtea, abenduaren 22a eguna eta iluntzeko zortzirak aldera ordua. Gogoan izango dituzte orfeoitarrek eta donostiarrek.

Bai, beltza izan zen gertakizuna... Orfeoiaren epoka argia eta dizdiratsua bezain. Mende osoa izan da ederra orfeoia. Zer korua, zer jendea, zer lagunartea! Añorgatarrak behin eta berriz goraiatu ohi zuen bezala. Maite zuen orfeoia eta maite zuen orfeoitarren gizalegea. Ez zen aspertzen lagunarte haren ederra kontatzen eta kantatzen. Horregatik diogu istori osoa izan duela ederra Orfeoia.

Eta ederrena eta dizdiratsuen ez ote da izan gure abesbatza famatuak Añorgako semea batutari izan duen urteetan? Ez al zuen aparteko sendotasun bat hartu? Beude galderak. Bego nere irudipena.

Bekit zilegi, hala ere, behar hainbat aldiz eta behar bezain goraki esaten ez den zerbait aitatzea añorgarrak Orfeoian egin zuen lanarentzat. Bazen batutaria gure gizona; baina ez zen hori bakarrik. Bazen enpresaria ere. Ederki erakutsia zuen Orona kooperatibaren sorreran eta garapenean. Berak bakarrik, esateko, egin beharra tokatu zitzaion aministrari eta jerentelanak. Haren burutik eginga dela esan daiteke Orona enpresa osoa.

Ez zen, beraz, batutari bakarrik, enpresari ere bazen eta batarrenak eta bestearenak egin zituen Orfeoian. Nolahalako eraketa zeukan gure abesbatzak Anttonek bere gain hartu zuenean. Lokal sozialak bazeukan hobearren premiarik, eta eskuratu zuen añorgarren ahaleginez. Ekonomia ere halatsu zebilen, eta sendotu zen gure enpresariaren jectioari esker. Ez zitzaion beti gozo gertatu lana. Ingurukoek esango lukete zerbait.

Baina Orfeoiaren eraberritzea ez zen horretan gelditu. Azpiegitarik hobereenarekin ere, zer egin dezake abesbatza batek abeslaririk gabe? Eta horien iturria agortuxea ikusten zuen gure batutariak. Ez zen gehiago parroketan abesbatza-

rik, ez tipleenik ez bestelakorik, horietan kantuan hasi, ikasi eta gero Orfeoiko sailak hornitzeko. Zenbat aldiz entzuten zitzaion elizetako koruen tamalezko galtze horretaz hitzegiten! Horiek izan omen ziren Euskal Herriko koru haundien sustrai eta eusgarri eta hornitzaile, eta nondik hornitu orain Orfeoia beste horien eskasian? Bere baitan sortu beharra zeukan bere mantenu-iturria. Eta hala egin zuen. Haren burutik sortua da Orfeoi-txiki eta haren burutik sortua ere kantu-eskola. Horrelaxe azpiegituratu zuen gure gizonak bere abesbatza. Gure enpresariak enpresa-egitura eman zion kantuzko enpresa honi, eta berebiziko sondotasuna hartu zuen Orfeoiak.

Hori guztia bazekien Orfeoiak eta heraren inguruak eta ez zen harrigarri haien dolua eta doluaren haundia. Baina ez zuten haiek bakarrik dolu egin. Haren sorterriak,edo sortauzokak, ere egin zuen. Gabon eguneko hileta testigu. Hura negarra,etxekoetatik hasita! Etxoentzat ere etxeko baitzen gure Antton, guztiz etxeko eta gauza guztietan etxeko, gureetan maiz izan ohi diren beharrak barne. Balukete esatekorik.

Eta etxekoen lagun, auzoak egin zuen negar. Honek ere bere baitzuen batutaria. Zerbait zen guztian han genuen gure gizona herrian eta elizan. Lagunen lagun zen eta ezagunen ezagun eta denen solaskide patxaratsu, haundi nahiz txiki, zahar nahiz gazte. Egi guztizkoa da "Diruak ez hinduen jan, ez eta famak eraman" hura. Lanaren morrontzatik aske zen guztian eta guztietan, Añorga zen Anttonen egonleku eta jolasleku eta janleku. Hamaika larunbatetan afaltzen zuen trankil asko jolas-etxean. Bai, guztiz etxeko eta auzoko zen gure batutari famatua. Horregatik egin zion malkozko agurra Añorgak bere seme kutunari.

Eta ni ere tartean nintzen, ez añorgar naizelako, baina bai han urte luzez bizitua eta mila modutako gauzetan aritua añorgarren artean eta Anttonen ondoan. Harreman horrek ginduen elkartu eta elkarganatu eta lagun egin. "Inoiz hutsegin ez zidan laguna" izendatzen dut beste nonbait. Hori da egia. Elkarrenganako guztizko errespetoan, harreman alai eta libre bat genuen añorgarrak eta biok. Ez ziren egun asko elkarrekin manoimano afaldu genuela. Tarte bat harrapatu zai egoten ginen horretarako.

Adiskidetasun zoragarri haren lekuko dira ondorengo bertso hauek, eta haren heriotzak nigan eragin zituen sendimenduen seinale. Bihoaz gure lagunaren omenetan, batutari izen zuen Orfeoiak bere Mendehurrena ospatzen duen honetan.

Ohar bihiru irakurri nahiko lituzkeenari:

3. bertsoan Olentzero kontuak ageri dira.Gabon bezpera-bezperan gertatu zelako gertatzekoa da hori. Idoia bat aitatzen da
4. bertsoan. Gure ikasle izandako bat da hori,eta Antton zena-ren begiko orfeonista bat. Añorgako hiletetan eman zidan musu hori. Ederregia zen neretzat izateko. Bertso horien doinua, norbaitek kantuz eman nahiko balitu, Amurizak 1980ko txapelketan "Gizona ez da ogiz bakarrik bizi" gaia kantatzera-koan erabilitakoa da. ✎



BIBA.LAGUN!!!

I

Zer zuen egun hark hala
negarretan urtzeko
galdetu beharrik ez da
iadanik ulertzeko.
Zetorren deskalabroa
ez al zen hainbesteko?
Eguraldi bihurri hark
zirudin deabruzko
nagusiaren irriskuz
nola zakur kateko.
Non ginen gu argi gorri
guztiak ez pizteko?

II

Zer negarra eta ai! zer
galera Donostiak!
Galduta ote dukeen
hauspoa abestiak!!
Hi bezalako gizonak
ain dituk galestiak!
Erregeak baduela
ordaina bazekiat.
Ez dituk, ordea, berdin
erregetza guztiak.
Hire makilak eskatzen
dizkik esku aztiak.

III

Giza-jale ase-ezin
bide madarikatu!
Ikazkinez jantzitako
ai! otso amorratu!
Sasi-olentzero hori,
hirekin duk tronpatu.
Ai laguna, Ai laguna,
nolaz ez duk pentsatu
tripazai harek hirekin
nai zuela bazkatu?
Aurrerapenaren laka
biziaz duk kitatu.

IV

Berriaren harria duk
bihotzez-bihotz jausi.
Ez hezak galdetu baden
hark ez duenik hautsi.
Begietan zauriaren
odola duk ikusi,
min gorria zioagu
elkarri erakutsi
musu eta besarkada
malko eta ikurtzi...
Idoiak hementxe zidak
hiretzakoa utzi.

V

Ilunaren beltzak gorde
dik sarraskiarena,
gau batez bistatik kenduz
sinetsi nai ez zena.
Zergatik argitu ote
zuen biharamuna?
Ez al hekien, eguzki,
egunak zekarkena?
Gorpuari tapakia
kentzen dionarena?
Hik jan duk gauzko gure
sasi-itxaropena.

VI

Zertan ez ote zen izan
egunetan azkena
hi gure artetik, lagun,
erauzi hinduena!
Zer biharamuna hura
hi gabe heldu zena!
Igeldo bere lekuan...
itsasoa lehena...
bizia bere pausoa...
Hura penaren pena!
Non zuten hiretzat beren
negarrezko omena?

VII

Min-lagunik ezak zidak
hil bihotzean mina.
Nigar egiteko baizik
ez bagerade dina,
kosmosak ez badu behar
entzun gure zotina,
zertan haragi bizitan
erakutsi anima
sar diezaigun kupira
gabe bere hagina?
Ez.lagun! Hire duk, eta
hoto nire min mina.

VIII

Minez bestaldetik haiz hi;
ni hik dakikanean.
Erdian zer dugun ere
nagok ezjakinean.
Bakar-bakarrik zekiat
hautala hemen-ean:
aurpegiz-aurpegi haukat
bihotzaren barnean
lehen-orainak bereizten
ez diraden unean...
Biba, lagun, orain eta
BETIKO EGUNEAN!!!